

ETXAGOK AMA BEGIRA

The background of the cover is a dark, almost black, space filled with intricate, swirling patterns of light. These patterns are primarily in shades of orange, yellow, and red, with some hints of blue and green. The lines are thin and wispy, creating a sense of movement and energy, reminiscent of a nebula or a complex fractal. The overall effect is one of dynamic, organic complexity.

2011KO IRAILA - 151. ZKIA

IKASTURTE BERRIRA BEGIRA

AURKIBIDEA

| | |
|-----------------------------------------|----|
| Txapa Txapelketa Topalekuan | 03 |
| Batetik Bestera argazki lehiaketa | 04 |
| Dardo txapelketa Kuboan | 05 |
| Kalean 2011: balorazioa iruditan | 06 |
| Gazte Informazioa | 08 |

AZKEN ORDUKOAK

Etxagok Ama Begira-ren azken aleetan Lagash taldeko bi kide ohiren egitasmo berriak ezagutu ditugu (Julian eta Andoni). Ba ale honetan, metal talde oñatiarreko beste kide baten egitasmo berria dakargu. **Lotis** bezala kaleratu du bere lan berria, baina bere atzean Angel Lumbreras aurkitzen dugu. Lagash desagertu ondoren, abesti berriak konposatzeari ekin zion, musikaren bidea utzi ezinda, eta horrelaxe sortu zuen **Lotis** egitasmoa.



“No llueve eternamente” da argitaratu berri duen lehen lanaren izenburua, eta hard-rock eta metalaren artean koka genezake, produkzio oso onarekin. Lana Oñatiko hainbat tabernatan eros daiteke, edo baita bere web gunean ere: <http://lotis.host56.com>.

TOPALEKUKO EGITARAUA

TXAPA TXAPELKETA

Ikasturteari hasiera emateko, hona hemen gauza gutxirekin bikain pasa dezakezuenaren froga: Txapa txapelketa. Txapa bat, eta jolasteko gogoia, horixe besterik ez duzue beharko ekimen honetan parte hartzeko ... Ah! Eta puntetria pixka bat ere bai, baina horixe besterik ez. Erakargarria iruditzen bazaizue, ager zaitezte Irailaren 16an 18:00ak baino lehen Topalekura, eta izena eman.



**Irailak 16, ostirala , 18:00etan
Izen-emate epea: Txapelketa hasi arte**

BATEAN BESTEAN argazki lehiaketa



12-18 urte badituzu, eta oporretan zure kamerari lotuta mugitzen bazara batean bestean, aurkeztu itzazu zure argazkiak (gehienez 3), eta sari bikain bat eramateko aukeratzeko gaitz zure argazkiak erakusketa batean ikusteko aukera ere izango duzu. Argazki guztien artean aukeraketa egin ondoren, onenak Gaztelekuan egingo den erakusketan jarriko dira, eta bertara hurbiltzen zarenenik izango duzue bozka bidez onenak aukeratzeko ardura. Bi argazki onenak sarduko dira (150 eta 100 euro), beraz, gogoratu argazki bakar batek oporren zati bat amonizatzen lagundu ahal dizula.




Argazkiak irailaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dituzue Gaztelekuko Gazte Informazio Puntuan. Esan bezala, gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango dituzue, paperetan zein euskarri informatikoan (CD batean), eta argazki bakoitza bere azalpenarekin eta atera zeneko datarekin joan beharko da. Guzti hau zuen ezizena daraman kartazal batean sartu, eta barruan, beste kartazal batean, zuen benetako datuak jarri. Animatu zaitzete parte hartzera!

Argazkiak aurkezteko epea: Irailak 23, ostirala
Non aurkeztu: Gaztelekuko Gazte Informazio Puntuan

KUBOKO EGITARAUUA

DARDO TXAPELKETA

Dardoen txapelketa hau ere klasiko bat bilakatzeko bidean da. Izan ere, garai batean soldaduen entrenamendua helburutzat zuen jolas hau, gaur egun oso hedatua dago, eta tabernetan zein gazteen lokaletan oso arrakatsua da. Zatozte Irailaren 25ean Kubora, eta erakutsi ezazue zuen punterial!



**Irailak 25, domeka, 17:00etan
Izen-emate epea: Txapelketa hasi arte**

KALEAN 2011

Taiyuan Circus



Yaima Orozco



Aurtengo KALEAN egitarauak ere eman ditu eman beharrekoak. Uztailean Taiyuan konpainiako akrobatek eman zioten hasiera, eta hurrengo egunean La Banda del Pepo taldeak eta Yaima Orozco abeslari kubatarrak jarraitu zuten, giro bikaina eta jende pila bilduz. Irailean, aldiz, eguraldiak ez du batere lagundu, eta Bitz eta Asfiksia taldeek emandako kontzertua ia osorik errespetatu bazuen ere, Surf festatik sardinada

KALEAN 2011

La Banda del Pepo



besterik ezin izan zen ospatu, gainontzeko ekimenak bertan behera geldituz. Trapu Zaharraren antzezlan-
na egin egin zen, baina lanbropean. Lastima, baina eguraldia da antolatzaileon eskutatik kanpo gelditzen den faktore bakarra.



Trapu Zaharra



Sardinada



gazte
INFORMAZIO PUNTUA

Oñatiko Gaztelekua - Foruen enparantza 4
943 718 257 - gazteinformazioa@oinati.net

BEKAK

Ikasturte berria ganean, eta krisiaren letaginak lepo inguruan, aurtengo beken inguruko informazioa lagungarri izango zaizue bat baino gehiagori. Hona hemen Gazte Informazio puntuan aurkitu dezakezuen informazioaren adibide txiki bat. Gogoratu informazio gehiago Gaztelekuko sarreran bertan dagoen bulegoan jaso ahal izango duzuela

- Lankidetzeta beka unibertsitateko ikasleentzat. Eusko Jaurlaritza. Epea: Irailaren 15a arte.
- Osasun-arloko profesionalak prestatzeko beka eta laguntzak. Eusko Jaurlaritza, Osasun eta Kontsumo Saila. Epea: Irailaren 13a arte.
- Unibertsitate eta Goi-Mailako ikasketetarako beka. Eusko Jaurlaritza. Epea: Irailaren 30a arte.
- Gizarte Zientzietako eta Humanitateetako Master ikasketak burutzeko Fulbright beka. Hezkuntza Ministerioa. Epea: Irailaren 22a arte.
- Gazte Ikertzaileentzako Unesco/Keizo Obuchi Bekak. Unesco, Japoniako Gobernua. Epea: 2012ko Urtarrilaren 13a arte.
- “Leadership Adventure” programa. Tean Academy Euskadi-Tecnalia. Epea: Irailaren 20a arte.